

## Euskeraren egoera nafarroan (1)

Granadako Unibersidadetik heldu zaigu lan hau. Egilea, 1970ko udan ibilia da herriz herri eta bailaraz bailara (oinez gehienetan), Nafarroan barrena, euskera guti asko mintzo den lur eremu guztian, hizkuntza honen egoera zehatz-mehatz aztertu eta ikasteko. 145 herri edo leku ikus-tatu eta ikertu ditu pertsonalki, galderak eginez, gauzak bere begiz ikusiz eta bere belarriz entzunez; 20 lekuren berriak besteren bitartez jaso ditu (ikus 27. orr.).

Galdeketa eta bilakuntza hauek ez dira beti egiten errazak. Baziren ikertzailea halako susmo txarrez hartzen zutenak, eta susmo horiek de-segin behar. Erantzunak ez ziren beti zuzenak edo egia-atiak. Bati edo biri galdetzea ere ez izan aski. Gizarte-maila desberdinetako berri emaileri galdetu nahi ian die, gainera: jende ikasi eta ez ikasiri, apaiz, baserritar, herriko sekretario, alkate, ta abar.

Euskerak gaur Nafarroan duen egoeraz kontu zehatza ematea ez da bat ere erraza. Oso egoera desberdinean aurkitzen bait da toki batetik bestera. Eta tokian tokiko egoera hori nola den ematea, izan da gure egi-learen asmoa. Toki batzuetan biziera mardula eta sendoa du euskerak, beste batzuetan hil-urren dago, beste batzuetan erdizkako bizimoldeaz bizi da. Eguzkialdeko partean (Erronkari, Saraitu, Orbaizeta, Auritze) asko edo erabat galdu da, mendebalekoan hobeki gorde eta irau du. Nolanahi ere, liburu haru eskuan duzula, egoera hori gaur nola den ikasten duzu. Makina bat xehetasun jakingarri ematen dizkitzu, gainera: zergatik galdu den toki batzuetan, gorde besteetan, t. a. Zenbatetarainokoa den, herri bakoitzean, euskeraren gizantasuna (lodia ala mehea) neurtzen dizu, bada, zehazki liburuak.

Erremedioak ere, etorkizunari begira, seinalatzen ditu. Bilinguismoa izango litzake erremedioa. Izan ere, arras eta zeharo euskaldun diren herriak, euskeraz baizik ez dakitenak, ez dira, ez, besteak baino hobe-kiago seguratuak, eta maiz ikusi da nola pasatu diren mutur batetik bes-tera: arras euskaldun izatetik arras erdaldun izatera, alegia. Euskaldun hutsak gaur egunean bere burua oso umezurtz ikusten bait du. Hori dela

---

(1) SANCHEZ CARRION. *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo. Institución Príncipe de Viana. Diputación Foral de Navarra.

eta, ahal duen bezain laster bizitzarako behar duen tresnaz jabetu nahi izatea ez da harritzekoa; eta batzuetan euskera gaitzetsi eta gorrotatzearaino ere heltzen da.

Beste aldetik bada adin bat bilinguismoarako gai ez dena. Horregatik, lehen urratsak, eskolan, haurrari —haur euskaldunari— euskeraz eman beharko zaizkio, eta gero euskeraren bidez bigarren hizkuntza —erdera— irakatsi, eta ongi irakatsi, gainera, behar duenean hortaz ere balia dadin.

Kontzientziazio lana ere egin beharra dago. PREJUICIO edo aurreiritzi makur asko salatu eta aizatu beharra (politikazkoak dira horietan ugarienak eta kaltegarrienak). Eta herri baten hizkuntza zein estimagarri den irakatsi beharra. Jakintsuak eta kulturadunak badu gehienetan balio horren kontzientzia. Ezjakinak, ordea, ez.

Kultura bide guztiak erderaren eskuetan baldin badira, nekeza da euskeraren balio hori ezjakinari sinestaraztea. Eskola, prensa, arradio, telebista, liburu: tresna guzti horiezaz baliatu beharra du euskerak.

Nafarroaren patu txarra izan da —hala dio gure egileak (207. orr.)— nafar euskaldunen artean kulturaldun gizon anitz ez egona; euskera eta kulturaren eskasia elkarrekin elkaturik maiz joan direla, alegia.

Bilinguismoa proposatzen du erremedio bezala, esan dugu. Bai. Euskaldunak gaurko egunean jakin behar du erderaz ere, eta ongi jakin, gainera, beharrezko duenean erabiltzeko. Eta kultura, bi mintzabide horietarik, eta ez batetik —erderatik— bakarrik etor dakiola egin behar dugu (205. orr.). Orain arte euskera baserri eta nekazari hizkuntza izan baldin bada soilki, etorkizunean hirikoa ere izan beharko du.

Baina ez du uste gure autoreak nolanhiko bilinguismoak euskera salbatuko duela. Honetan Estornes Lasaren iritzitik aldentzen da (197. orr.). Bilinguismoa ez da gizonaren egoera normala, eta are gutiago herri batena. Bizitza guztian zehar bi hizkuntzok elkarrekiko burrukan eta har-emanean aritzen badira, gutxika-gutxika bistan da zein aterako den gailen: erdera. Eta euskera erkindua edo zokoratua geldituko litzake.

Ez. Euskera biziko bada, giro bat muntatu beharra dago erabat euskalduna. Euskaldunak beharko du erderaz jakin, behar duenean erabiltzeko; baina eguneroko bizitza eta arazoetan horren beharrik ez luken bezalako giroa nahi litzake. Giro euskaldun horrek bakarrik segurta lezake euskeraren bizitza.

“LEKUTAN GATXEOK!”, esango du hemen irakurleak. Bai, hala da. Baina xedea, helburua zein den garbi ikustea, hori da lehen. Helburua zein den jakin ondoren, harako bideak bila edo eska daitezke.

Euskaldun, euskalari eta euskaltzaleon eskerrona merezi du Sánchez Carrión jaunak lan tresna baliotsu hau paratu digulako. Eta bai liburua argitaratu duen PRINCIPE DE VIANA elkargoak ere.

Aita L. VILLASANTE

(“Aranzazu” aldizkaria azaroa 1972).